

Gernikako gazte etorkinak euskal mundura erakartzeko egitasmoa diagnostikoa

Gernikan, 2009ko urtarrilaren 15ean

AURKIBIDEA

1.- SARRERA

2.- EGITASMOAREN DESKRIBAPENA

2.1.- Oinarri teorikoak

2.2.- Diagnostikoa kuantitatiboa

2.3.- Diagnostikoa kualitatiboa

2.4.- Helburuak

2.5.- Aurrekariak

2.6.- METODOLOGIA

3.- EGINDAKO LANAK

3.- AURRERA BEGIRAKO LANAK

4.- ONDORIOAK ETA BALORAZIOA

1.- SARRERA

Gernikako Udalerrian etorkin gazteak euskal mundura erakartzeko bitartekoak lantzeko proposamena garatu nahi dugu abiatu dugun ekimen honi esker, eta bertako memorian islatu nahi izan dugun memorian.

Horretarako, Gernikako hainbat eragilerekin: elkarte, erakunde, eskola, ikastetxe, euskaltegi, Udala bera edota etorkinak eurak eta gaiari heltzeko gogoia eta interesa azaltzen dutenekin batera, hausnarketa estrategikoari ekiteko proposamena egiten dugu, norantz eta nola joan nahi dugun eta zein interbentzio-estrategia garatuko den lantze aldera. Unean uneko ekintzak garatzeko joera isolatu, eta planifikatu gabea hobetzeko asmoz.

Proiektuak perspektiba integralagoa izateko eta eragileen arteko elkarlanean eta sinergien batuketan oinarrituta egoteko landu nahi dugu ekimena, baita norberaren eskarmentuaren, beharren eta asmoen hausnarketarako bide hau aurreikusi dugu, etorkizunari aurre egingo dion zerbitzu osoagoa eta integralagoa eman ahal izateko.

Txostenaren mamian murgildu aurretik, Gernikako Udalari eta proiektuaren diagnostikoan, diseinuan eta orain arteko fasean parte hartu duten eragile guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu eskainitako laguntzagatik eta proiektu honetan jarritako gogoagatik. Esan beharra dago "Etorkin berriak euskal mundura erakartzeko egitasmoa dela eta egindako bileretan bere ekarpenak behar beharrezkoak izan zitzaizkigula bere ezagutza eta esperientziaz baliatuz egin baitu aurrera honako egitasmo honek.

2.- EGITASMOAREN DESKRIBAPENA

2.1.- OINARRI TEORIKOAK

“Ezinbestekoa da etorkinak euskarara eta euskal kulturara erakartzeko plan orokor bat bultzatzea. Etorkinen bizi baldintzetara moldatuko den plangintza sendo bat...” Erabili.com 2006-03-31 **Patxi Juaristi Larrinaga**, Politika eta Administrazio Zientzietako irakaslea EHU.

Hau horrela izanik proiektu hau aurrera ateratzen ari den AHIZE-Aek, Gernikako Udalaren izenean, hainbat eragile desberdinekin lan egiteko beharra ezinbestekotzat jotzen du, bere lan esparrua euskara bada ere.

Plan Honen arrakastarako gako garrantzitsua baita sinergiak batzea, hau da, egin den eta egiten ari diren lanak, bai herri mailako talde eta elkarteetatik zein udal erakundeetatik, osatzea eta egindakoari jarraipena ematea eta aurrera begira eskualdean egingo diren lanentzat ere erreferente izatea honakoa, nolabait ere denboran iraun ditzaten lortutako eta egindakoek. Horretarako hasierako fase honetan abiatu dugun ekimenean parte hartu duten erakunde eta elkarteek gain, Gernikako Udaleko euskara teknikaria, immigrazio teknikari eta gazte planeko teknikariaren parte hartzea ezinbestekotzat jotzen dugu.

Azken urteotan gure eskualdean, Euskal Herriko gainontzeko herri eta hirietan bezala biztanle berrien etorrerak gora egin du. Eta migrazioaren fenomeno Euskal Herria osoan bezala eskualdean berria ez bada ere, garai batean emigratutako euskaldun ugari baitugu gure artean, baita orain dela urte gehiago immigratutakoak ere, baditu fenomeno honek aldaera berri batzuk: etorkinen egoera juridiko administratiboa, jatorria, kultura, hizkuntza, erlijio desberdinetako pertsonak osatzen dugu egungo Busturialdea, eta horiek kontuan hartuta hizkuntzaren ikuspegitik erantzun egokia ematea da Udalak eta gizarteak oro har duen erronketako bat.

Euskal Herriko beste hainbat herritan gertatzen ez den bezala, eskualdeak baditu aparteko berezitasun batzuk immigrazioaren gaiari eustean garrantzia hartzen dutenak, hala nola euskararen erabilera eskualdean. Euskara Busturialdean Euskal Herriko beste hainbat lekutan ez bezala biztanleriaren gehiengoak erabiltzen duen hizkuntza da (Lea-Artibai eta Urola Kosta eskualdeen atzetik baino ez dago erabilera eta ezagutzari dagokionez), herriratzen gehien laguntzen duen adierazleetakoa izan daiteke hizkuntza beraz.

Honek esan nahi du immigrazioaren gaiak esparru desberdinetako erantzunekin batera hizkuntza eta euskararena lantzea eskatzen duela. Jakin badakigu, euskara eta euskal kultura ezezagunak direla iristen ari diren herritar berrientzat baita alderantziz ere eskualdeko euskaldunei ezezaguna zaie etorkinen kultura, ohitura e.a horri erantzun bat emateko sortu zen hain zuzen ere hurrengo orrietan azaltzen dugun egitasmoa. Egitasmoaren helburua da Udalerrian etorkin berriei euskara, euskal kultura eta eskualdeko biztanleria gerturatzea. Horretarako egitasmoaren lau azpi-helburuak honakoak dira:

- 1.- Bertoko euskaldunen eta etorkin berrien artean kalitatezko harreman sareak sortzea
- 2.- Bertoko biztanleriak etorkinen kulturak, hizkuntzek eta jatorriko herriek duten garrantzia aitortzea
- 3.- Etorkinek euskara, euskal kultura eta Euskal Herriko egoera ezagutzea
- 4.- Etorkinek herrian partaidetza aktiboa izatea

Proiektu honetan aritu den lan taldeak hainbat eragileren iritzi, esperientzia, eskarmentu, lan eta kontrastek jaso eta aztertu ostean, eta batez ere, Lea-Artibain antzeko proiektu bat garatzen izandako pertsonekin jardunda, horietako ondorio dira, jarraian zehaztu nahi ditugun printzipioak:

Zein da etorkinen hizkuntzei aitortuko diegun begirunea? Nahi al dugu etorkinek haien hizkuntzak ahaztea gureak erabil ditzaten? Norberaren lehen hizkuntza auto-estimua eta



identitatearen parte oso garrantzitsua da. Ez dago zertan kultura propioa galdu gizarte berria egokitzeko, sustraiak beste nonbait garatzeko. Jatorrizko hizkuntza galtzekotan, ezin izango da "integrazioaz" hitz egin.

Autoktonoen jarrerak eta arauak eragin zuzena dute etorkinen bizitzan, erabakietan... baina baita alderantziz ere: etorkinek hartuko dituzten erabakiek ere eragingo dute autoktonoen bizitzaren hainbat alorretan. Baita alderdi kultural eta linguistikoan ere. Beraz, ezinbestekoa izango da ere etorkinen jatorrizko hizkuntzak ere aintzat hartzea.

- 1) Auzi estrukturala da, globala, hazi egingo dena datozen urteetan.
- 2) Kulturartekotasunaren aldeko jarrera intelektuala portaera erreal bihurtzen joan behar da.
- 3) Hizkuntza komunitate gisa konpondu gabe dauzkagun auzien eguneratzea dakar: ikas-ereduak, dohaineko euskalduntzea...
- 4) Zer daukagu eskaintzeko? Zer eskatzeko?

Posible da "integratzea" harrera gizartearen hizkuntza jakin gabe?, eta hizkuntza integrazioa posiblea da gutxienezko gizarte integrazioerik gabe?

Zer gertatzen da harrera gizartean bi hizkuntza daudenean? Hau da, Euskal Herrian eskualdeen artean hizkuntza errealitate oso desberdinak bizi ditugu eta oro har euskararik jakin gabe ere gizartean moldatzerik badago ere, Lea-Artibai bezalako eskualdean euskara jakiteak aukera ugari ematen ditu, sozialak, laboralak,.... Euskara jakiteko eskubidea bermatuta izan beharko luke herritar orok orduan.

- *Eta autoktonook, zer eskatu nahi diegu etorkinei euskararen normalizazio prozesuarekiko?*
- *a) gutxienez, prozesuarekiko errespetua (horretarako informazioa behar dute)*
- *b) bigarrenez, nahiko genuke euskararekin "sinpatia" lortu (eta horretarako informazioa ez da nahikoa).*

Idea hedatu batzuek ez dute laguntzen: "etorkin gizajoak, nahiko daukate haien egoerarekin orain beste hizkuntza bat ikasteko..." Etorkinak ere badu hizkuntza ofizial biak jakiteko eskubidea eta hori lortzea erraztuko dion eskaintza egokia eskuragarri izatea.

2.2.- DIAGNOSTIKO KUANTITATIBOA

ATZERRIKO BIZTANLERIA BUSTURIALDEKO MANKOMUNITATEAN (2008)¹

1. Atzerriko biztanleriaren eboluzioa, 2007-2008.

2007ko URTARRILAREN 1ean				2008ko URTARRILAREN 1ean			
	Biztanleria orokorra	Atzerritarrak	%	Biztanleria orokorra	Atzerritarrak	%	Aldaketa
ARRATZU	353	6	1,6%	359	10	2,7%	+4
BUSTURIA	1.737	44	2,5%	1.732	53	3%	+9
EA (*)	899	18	2%	906	19	2%	+1
ELANTXOBE	447	7	1,5%	440	9	2%	+2
ERRIGOITI	511	10	1,9%	522	16	3%	+6
FORUA	956	46	4,8%	998	54	5,4%	+8
ARTEAGA	900	42	4,6%	898	40	4,4%	-2
GERNIKA	16.169	1.100	6,8%	16.290	1.276	7,8%	+176
IBARRANGELU	596	12	2%	613	18	2,9%	+6
KORTEZUBI	406	9	2,2%	416	9	2,1%	0
MENDATA	374	6	1,6%	375	9	2,4%	+3
MORGA	396	7	1,7%	400	11	2,7%	+4
MUNDAKA	1.860	75	4%	1.881	99	5,2%	+24
MURUETA	305	11	3,6%	311	11	3,5%	0
MUXIKA	1.395	17	1,2%	1.475	29	1,9%	+12
NABARNIZ *				230	2	0,8%	-
SUKARRIETA	353	8	2,2%	345	11	3,1%	+3
GUZTIRA	27.657	1.418	5,1%	28.173	1.676	5,9%	+258

Iturria: Biztanleen Udal-errola. *Nabarniz 2007.ko amaieran sartu zen Mankomunitatera.


- 1) Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Elkargoa osatzen duten 17 udalerritan **beste herrialde batzuetako 1.676 pertsona errolatuta daude, biztanle guztien %5,9** alegia. 2007ko urtarrilaren 1ean ziren 258 gutxiago. Etorकिन kolektibo honen %90 bost udalerritan errolatuta dago: Gernika-Lumo, Mundaka, Forua, Gautegiz-Arteaga eta Busturia.
- 2) **Gernika-Lumoko** udalerrian Elkargoan dauden atzerritarren %76 biltzen dira (lagun errolatuta). **Gernika-Lumoko biztanleen %7,8** beste herrialde batzuetatik dator.
- 3) 1996.urteetik 2008.urteko urtarrila arte Elkargoan errolatutako atzerritar kopurua **hamar bider handitu da, 164 lagun izatetik 1.676 izatera.**
- 4) Inmigrazio berriaren aurrean gaude: **etorkinen %68a azkeneko hiru urtetan heldu da (%31 2007an).**
- 5) Atzerriko biztanleen %48,3 Europako Batasunetik kanpoko herrialdetik etorri da. Gehien bat ageri diren nazionalitateak honakoak dira: **errumaniarra (719 pertsona), boliviarra (99), argentinarra (94), ekuadortarra (82) eta brasildarra (60).** 2007.an gehien gehitu diren nazionalitateak: **errumaniarra (151 pertsona gehiago); brasildarra (22 gehiago) eta boliviarra (16 gehiago).** Europako Batasunetik etorri direnen %84 (719) errumaniarrak dira.
- 6) **Emakumeak** eskualdeko etorkin guztien %48 dira.
- 7) Atzerriko biztanleen erdia 18-39 urte bitartekoa da eta %16 adin txikikoa.

¹ Datu hauek Busturialdeko Gizarte zerbitzuaren elkargoak prestatutako txostenetik jasota daude.


2. Atzerriko biztanleria Busturialdean, nazionalitatearen arabera, 2008.

NAZIONALITATEA	2007 (1/01) Nº	2008 (1/01) Nº	ALDAKETA 1/01/2007 1/01/2008
ERRUMANIA	568	719	+151
BOLIVIA	83	99	+16
ARGENTINA	91	94	+3
EKUADOR	87	82	- 5
AEB	61	64	+3
BRASIL	38	60	+22
PORTUGAL	35	48	+13
MAROKO	37	45	+8
MOLDAVIA	45	49	+4
COLOMBIA	44	40	-4
PARAGUAI	25	39	+14
TXINA	38	33	-5
UKRANIA	25	32	+7
FRANTZIA	14	19	+5
KOREA ERR.	5	19	+14
ERRESUMA BATU	18	18	0
ITALIA	12	16	+4
MEXIKO	11	16	+5
KUBA	13	15	+2
PERU	11	15	+4
ALEMANIA	10	14	+4
ARGELIA	14	14	0
DOMINIKAR ERR.	12	13	+1
AUSTRALIA	11	12	+1
PAKISTAN	21	10	-11
VENEZUELA	13	10	-3
BESTE HERRI	78	86	+8
GUZTIRA	1.418	1.676	+258


3. Atzerriko biztanleria Busturialdean, adinaren arabera, 2008.



4. Atzerriko biztanleria Busturialdean, sexuaren arabera, 2008.



5. Busturialdera atzerriko inmigrazioaren etorreraren urtea.



GERNIKA-LUMO. Atzerriko biztanleria

NAZIONALITATEA	2007 (1/01)	2008 (1/01)	ALDAKETA
ERRUMANIA	502	642	+140
BOLIVIA	67	74	+7
EKUADOR	76	69	-7
ARGENTINA	63	61	-2
BRASIL	31	50	+19
MOLDAVIA	38	41	+3
TXINA	38	33	-5
AEB	30	31	+1
MAROKO	28	31	+3
UKRAINIA	23	30	+7
PARAGUAI	19	26	+7
PORTUGAL	25	25	0
KOLONBIA	17	19	+2
DOMINIKAR ERR.	12	12	0
FRANTZIA	9	11	+2
ITALIA	8	11	+3
MEXIKO	11	11	0
ALGERIA	9	10	+1
AUSTRALIA	9	10	+1
PAKISTAN	21	9	-12
BESTE HERRI	75	70	-5
GUZTIRA	1.100	1.276	+176

IKASLE ATZERRITARRAK BUSTURIALDEAN								
Ikastetxeak Centros	Ikasle Alumnado 2005/2006	Etorkinak Migra 2005/2006	Ikasle Alumnado 2006/2007	Etorkinak Migra 2006/2007	Ikasle Alumnado 2007/2008	Etorkinak Migra 2007/2008	Ikasle Alumnado 2008/2009	Etorkinak Migra 2008/2009
CEP Allende	642	21 (3,3%)	664	31 (4,7%)	682	37 (5,4%)	696	35 (5,1%)
CEP Barrutia	175	8 (4,6%)	187	8 (4,4%)	210	6 (2,8%)	235	15 (6,3%)
IES Barrutialde	240	2 (0,8%)	230	5 (2,2%)	214	7 (3,2%)	216	9 (4,1%)
IES Gernika	713	20 (2,8%)	722	21 (2,9%)	717	20 (2,7%)	717	14 (1,9%)
La Merced	296	78 (26,4%)	294	62 (21,1%)	303	106 (34,9%)	307	113 (36,8%)
San Fidel	651	24 (3,7%)	682	29 (4,3%)	672	36 (5,3%)	676	44 (6,5%)
Seber Altube	543	18 (3,3%)	556	20 (3,6%)	572	16 (2,7%)	582	15 (2,5%)
Montorre (Arteg)	44	1 (2,3%)	42	3 (7,1%)	43	2 (4,6%)	43	2 (4,6%)
Mundaka	119	3 (2,5%)	115	3 (2,5%)	122	13 (10%)	121	10 (8,2%)
Ucelay (Busturi)	76	2 (2,6%)	90	3 (3,3%)	91	1 (1%)	101	3 (2,9%)
Urretxindorra	43	1 (2,3%)	48	1 (2,1%)	54	1 (1,8%)	62	1 (1,6%)
Publikoak	2.052	58 (2,8%)	2.098	75 (3,5%)	2.133	87 (4%)	2.191	89 (4%)
Kontzertatuak	1.490	120 (8%)	1.532	111 (7,2%)	1.547	158 (10%)	1.565	172 (10%)
Orokorra/Total	3.542	178 (5%)	3.630	186 (5,1%)	3.680	245 (6,6%)	3.756	261 (7%)

Fuente/Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Bizkaia)/ Departamento de Educación, Universidades e Investigación (Bizkaia).

Haurreskola publikoen datuak ez daude taulan (Allende/Muxika/Barrutia/Montorre/Seintxu/Mundaka) / Los datos de las haurreskola públicas no están en la tabla.

65,9% ZENTRO KONTZERTATUETAN ETA 37,1% PUBLIKOETAN

IKASLE ATZERRITARRAK MAILAREN ARABERA (2008/2009)

	2007/2008	2008/2009
HAUR HEZKUN/INFANTIL (0-5)	63	70
LEHEN HEZKUNTZA/PRIMARIA	105	113
DBH/SECUNDARIA	70	71
BACHILLERATO	4	3
LANBIDE/FP (Erdi maila/medio)		
LANBIDE/FP (Goiko maila/super)	3	4
OROKORRAK	245	261

NAZIONALITATERIK NAGUSIENAK

Errumania	110
Argentina	29
Bolivia	18
Ekudador	14
Brasil	10
Ukrainia	9
Dominikar Errepublika	6
Errusia	6
Moldavia	6
Mexiko	6
Maroko	5
Paraguay	5

EUSKARAREN ERABILERA GERNIKAN

Euskararen KALEKO ERABILERA (2006) ²	Euskararen EZAGUTZA (2001)
% 51,5	% 69,3
Neurtutako hiztun kopurua	Gernikako hiztun kopurua (01)
3.440 (herritarren % 23)	14.884

“Neurketako datuak adin taldeka bereizita jaso ditugu. Eta adin taldeak, berriz, honela banatu ditugu:

- Haurrak:** 0 urtetik 14 urte bitartekoak
- Gazteak:** 15 urtetik 24 urte bitartekoak
- Helduak:** 25 urtetik 64 urte bitartekoak
- Adinekoak:** 65 urtetik gorakoak

² Datu hauek Soziolinguistikaren Klusterrak 2007ko urtarrileko Gernika-Lumoko kale erabileraren neurketa txostenetik jasota daude. Neurketa horiek 2006ko ekainean egin ziren.



Egindako neurketa guztiak batuta, honako hau da adin talde bakoitzean neurtutako euskararen erabilera:

...euskara gehien erabiltzen dutenak haurrak eta gazteak dira (% 71 eta % 66, hurrenez hurren), herriko batez bestekotik gora ageri diren bakarrak; ondoren adinekoak ageri dira, gazteak baino 12 puntu gutxiagorekin (% 54), eta herriko batez bestekotik gertu. Euskara gutxien erabiltzen dutenak helduak dira (% 45); aldea nabaria da, erabilera 26 puntu jaisten baita haurren erabilerarekin alderatuz gero.

Ezagutza mailak kontuan hartuta, adin-talde gazteenengan erabileran jasotako emaitzak ez dira harriztekoak. Izan ere, urte askotako irakaskuntzako ahaleginei esker adin talde euskaldunenak haurrena eta gazteena dira ezagutzari dagokionez, eta neurketak adierazten digunez, Gernikan baita kaleko erabileran ere. Gazteen ezagutza maila haurrena baino altuxeagoa izan arren, haurren erabilera gazteenaren gainetik ageri da; beraz, nabarmentzekoa da haur izatetik gazte izatera pasatzean, hizkuntza ohiturak aldatu egiten direla Gernikan ere, Euskal Herriko toki askotan bezala.

Herri batean euskararen erabilera aztertzekeo garaian erabileraren adin taldekako bilakaera bereziki garrantzitsua da. Normalizazio mailan egindako ahaleginen ebaluaziorako datu zehatzagoak lor ditzakegu, eta neurri batean, ondorengo urteetako jokaerak ere aurreikus genitzake.

1989an, 1993an eta 1997an EKBk egindako neurketetan jasotako datuak eta SEIk 2001ean jasotakoak ere baditugunez, adin taldeek azken hamazazpi urteotan erabilerari dagokionean izaniko bilakaera aztertu dezakegu. Datu hauek alderatzeko, aurretik esanda bezala, kontuan izan 2001ean eta 2006an ikastetxearen inguruan jasotako datuak alde batera utzi ditugula; izan ere EKBk egindako neurketetan ez zen ikastetxe ingururik neurtu.

Azpian duzuen diagramak laburbiltzen ditu, beraz, orain hamazazpi urteko eta gaur egungo datuak. Datuek argi adierazten dute adinekoetan izan ezik, beste adin talde guztietan euskararen erabilerak hazkundera izan duela

Belaunaldi gazteenak dira, hamazazpi urte hauetan erabileran hazkunderik altuena bizi izan dutenak: gazteen erabilera 43 puntutan areagotu da, eta haurrek, berriz, 36 puntuan hobetu dute erabilera. 1993tik aurrera 2006ra arte, haurren erabileraren goranzko bilakaera hori konstantea izan da. Gazteetan, berriz, 1989tik 1997ra bilakaeraren goranzko erritmoa oso azkarra izan zen; ondorengo bederatzi urteetan, bilakaerak gorantz jarraitu du, baina erritmoa mantsotu egin da. Azpimarratzekoa eta kontuan hartzekoa da, era berean, haurren eta gazteen erabileraren artean dagoen alde hori: 20 eta 19 puntuko aldea izan da azken bi neurketetan, eta aurreko urteetan, berriz, diferentzia zertxobait handiagoa. Ezagutzari dagokionez, gainera, 2001eko datuen arabera gazteen ezagutza haurrenaren gainetik ageri da hiru puntugatik. Gernikan, beraz, oso nabarmena da haur izatetik gazte izatera igarotzean hizkuntza ohiturak aldatu egiten direla.

Ikus dezakegunez, erabilerak aldaketak izan ditu hamazazpi urte horietan. Datuak ditugunetik haurrak dira, batez ere, erabilera indizirik altuena erakutsi izan dutenak. Bi adin talde gazteenen bilakaera, areagotzearena izan da urte hauetan. Helduen eta adinekoen erabilerari dagokionez, nabarmentzekoa da biek behera egin dutela azken bost urtekoan.

2.3.- DIAGNOSTIKO KUALITATIBOA

Proiektuari hasiera emateko lehenengo eragile esanguratsu batzuegana jo dugu eta beraiekin elkarrizketa bana izan dugu, bakoitzaren egoera, ikuspuntua, aurrera begirako beharrak, nahiak eta bitartekoak zein diren jasotze aldera. Azpiko hauek dira eragile nagusi horiek:

Erakundea
Berritzegunea: Nerea Jaio
Immigrazio teknikaria: Begoña Agirre
Seber Altube Ikastola: Koldo Carbonell
San Fidel Ikastola: Bego Zabaleta
Mertzedetako eskola: Belen Martiartu, Mertxe Perez deArliluzea
BHI Gernika: zuzendaritza taldeko lau kide
Barrutialde Institutua: Alex Viguera
Gernikako Gizarte Ongizate zerbitzua: Aitziber Erdozia
Etorkinen elkarte: Fernando Cruz
Errumaniarren hezitzailea : Antonio Garcia
ELA: Ixone Akarregi, Emerita Cuellar
LAB: Aitziber Barandika
AEK: Igone Olabarria
leup gazte asablada: Oier Plaza
Ehunzango elkarte: Patxi Bartolome, Xabi Goiria
Kultura zinegotzia: Ekain Ormaetxea
Euskara zinegotzia (EAE-ANV): Idoia Fernandez
Euskara teknikaria: Bittor Zarrabeitia
Euskal Herrian Euskaraz: Pernando Basterretxea
CIP: Amagoia Beika
Aitor Olasolo (Gernikako lokutorio bateko arduraduna)
Elkarteak: dantza-taldeak, Futbol-taldeak, esku-pilota, errugbi-ekipoa

1.-AHULEZIAK

1.Helburua: Bertoko euskaldunen eta etorkinen artean kalitatezko harreman sareak sortzea.

“...igual hasi behar dugu gazteetatik denbora gehiago daukatelako...hemengo gazteak be ez daude antolaturik, bakoitzak dauka bere lonja...gero Astran biltzen dira eta leku aproposa izan daiteke gauzak antolatzeko...”. Bego Agirre.

“errumaniarren artean bereizten dabez ijitoak izen ala ez...eta han ere ez dira izen eskolaratuak”. Gernikako BHiko zuzendaritza taldea.

“...Ghettoen asuntoa, eurek elkartzen badie eta euren elkartzen badie eta euren bizimodu egiten badute euren artean, ez dute euskeraren beharra ikusten eta...” Koldo Carbonell

2.Helburua: Bertoko biztanleek etorkinen kulturak, hizkuntzek eta jatorrizko herrien duten garrantzia aitortzea.

“Kontua da ba hori, ez, kultura biak kontuan hartuta, batak bestearen eragina izanda, ba ez izatea gauza baztertzaille ba hizkuntzaren ikuspegitik, baina batera ateratzeko kontuak, ez, eta gure mundura erakarri eta gu euren mundura hurbildu ere, ez, ba sarritan ez daukagu ezagutzarik, aurreiritziekin jokatzeko dugu eta hori, guk hori da hain zuzen nahi doguna, harremana izatea gurekin eta guk eurekin, ez izatea, hala!, bakoitza gu geure aldetik gauza puntualak, ez, euren asmoa da hamen bizitza eta hamen geratzea...” Igone Olabarria.

“...helburua kulturaren dantza eta kantuek eta inportanteak dira, ba egunen batean errumaniako talde bat ekarri eta batera dantza egin...” Igone Olabarria.

“...egiten baduzu espezifikoki ezberdina, ezberdintzen dituzulako da...” Aitziber Erdozia.

“...iñauterietan egiten doguz tallerrak disfrazanak...eta zuek zelan ospatzen dozuez? Bueno ba etorriko gara disfrazeta eta eingo dogu ez dakit zer...” Aitziber Erdozia.

“...irteerak egiten doguz, baina taldetxoak egiten direla igerten da”. A. Erdozia.

3.Helburua:Etorkinek euskara, euskal kultura eta Euskal herriko egoera ezagutzea.

“...batzutan astiro-astiro bera konturatu barik eurei euskara egitea...gauzak normalizatuta; ez esatze hemen euskeraz egiten da tallerra, ez, euskeraz egiten da, bera konturatu barik, hori desberdina da...” Amagoia Beika

“...muchas veces es gente que viene preparada para lo que sea, pues muchas veces cogen los trabajos que nosotros no queremos...” Ixone Akarregi

“...limpieza, cuidado de nuestros mayores...por lo menos los que vienen jóvenes que se den cuenta y que se integren de verdad...” Emerita Cuellar

“...Arazo nabarmenetako bat hizkuntzak emoten dauen mugie...hemen gaztelania enmtzuten dabe...etorri zirenen 4 hitz bazekiten horiek gazteklaniaz”. Gernikako BHIKO zuzendaritza taldea.

4.Helburua :Etorkinek herrian partaidetza aktiboa izatea.

“...baikorra izateko esan behar da gero eta bikote gehiago sortzen ari direla, baina orokorrean harreman oso gutxi dago, ...e, harremanak sortzeko zer egin ahal dugun, ba, elkarteak oso inportanteak dira ene ustez, baina etortzen da jendea lan egiteko eta ez dute denborarik gauzak egiteko...gero Astran biltzen dira eta leku aproposa da gauzak antolatzeke...” B. Agirre.

2.4.- EGITASMOAREN HELBURU NAGUSIA

Proiektu honetako helburu nagusia: Gernika-Lumoko etorkin gazteak euskal mundura erakartzeko Plan Estrategikoa diseinatzea eta abiatzeko proiektua abiatzea da. Horretarako, 12 urtetik 24 urtera arteko Gernika-Lumoko etorkin gazteak izango dira aztergai, 3 multzo edo azpitaldetan berezita:

- a) 12 urtetik 15 urtera arteko gazteak
- b) 16 urtetik 19 urtera arteko gazteak
- c) 20 urtetik 24 urtera arteko gazteak

2.5.- PROIEKTUAREN AURREKARIAK

- Gernika-Lumoko Udalak, Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoa 2003ko apirilaren 30ean onartu zuen eta horren ildotik hamalau gizarte esparru lantzeari ekin dio azken urteotan, hurrengo helburu estrategiko nagusiekin lotuta:
 - 1. Helburu estrategikoa: euskara ondorengoetaratzea.
 - 2. Helburu estrategikoa: euskararen erabilpena.
 - 3. Helburu estrategikoa: euskara elikatzea.
- Plan Estrategikoa garatzeko urtero finkatzen da Kudeaketa Plana eta 2008koan hainbat ekintza hartu dira aintzat etorkinei begirakoak. Horietako gehienak “Etorkin gazteak euskarara hurreratzeko egitasmoa” delakoaren bitartez gauzatzea da helburua. Hona hemen, 2008ko kudeaketa planean bertan jasotako helburu eta ekintza zehatzak:

Helburu estrategikoa: 1.- Euskararen ondorengoetaratzea.

Esparrua.- 1.a. Irakaskuntza.

Ekintza:

1.a.03/002 Lehentasuna Altua	Etorkinen seme-alabei zuzendutako programa bereziak eratzea, euskara ikasteko metodologia eta jarduera osagarriak antolatuz.	Eusk. Zerb. Euskaltegiak Berritzegunea
------------------------------------	--	--

Esparrua.- 1.b. Euskalduntze-alfabetatzea.

Ekintza:

1.b.01/005 Altua	Gazte etorkinei buruzko diagnostikoa egin, euskarara hurreratzeko helburu	Eusk. Zerb. AEK-Ahize Etork. elkarteak
---------------------	---	--

Helburu estrategikoa: 2.- Euskararen erabilera

Esparrua.- 2.e. Aisia.


Ekintza:

2.e.01/002 Altua	Kale hezitzaileekin elkarlanean aritu, euren ardurapeko esparruan euskara sustatzeko aisialdi-programa berezia eratuz	Eusk. Zerb. Gizarte Zerbitzuak
---------------------	---	--------------------------------------

- Gernika-Lumoko Udalak euskalduntze-alfabetatze esparruan eragiteko AEK Euskaraz Koop. Elkartearekin elkarlanean ekiten dio 2004az geroztik, “Beralagun” egitasmoa gauzatzeko hain zuzen. Orain, AEK Euskaraz Koop. Elkarteak, Gernika-Lumoko Udalaren interesa bitarteko, proiektu bat aurkeztu du “Gernika-Lumoko etorkin gazteak euskal mundura erakartzeko Plan Estrategiko diseinatu eta abiatzeko deitura duena, eta txosten honen sorrera izan dena.

2.6.- METODOLOGIA

Prozesua abiatzeko metodologia proposamena



BILERETARAKO DATAK

2008. URTEA

IRAILA	Al	Ar	Az	Og	Or
	1	2	3	4	5
	8	9	10	11	12
	15	16	17	18	19
	22	23	24	25	26
	29	30			

URRIA	Al	Ar	Az	Og	Or
			1	2	3
	6	7	8	9	10
	13	14	15	16	17
	20	21	22	23	24
	27	28	29	30	31

AZAROA	Al	Ar	Az	Og	Or
	3	4	5	6	7
	10	11	12	13	14
	17	18	19	20	21
	24	25	26	27	28

ABENDUA	Al	Ar	Az	Og	Or
	1	2	3	4	5
	8	9	10	11	12
	15	16	17	18	19
	22	23	24	25	26
	29	30	31		

2009. URTEA

URTARRILA	Al	Ar	Az	Og	Or
				1	2
	5	6	7	8	9
	12	13	14	15	16
	19	20	21	22	23
	26	27	28	29	

OTSAILA	Al	Ar	Az	Og	Or
	2	3	4	5	6
	9	10	11	12	13
	16	17	18	19	20
	23	24	25	26	27

- Bilera-egunak
- Txostenak banatzeko egunak
- Kontraste-bilerak /ekarpenak egiteko egunak
- Aurkezpen publikoak/prentsaurrekoa



3. ORAIN ARTE EGINDAKO LANAK

1. BILERA: 2008ko azaroaren 19a

Bertaratuak:	Bertaratu ez direnak
<ul style="list-style-type: none"> -Begoña Agirre (Inmigrazio teknikaria) -Eva Ugalde (Gernikako BHI) -Maria (Mertzedek Ikastetxea) -Bego Zabaleta (San Fidel Ikastetxea) -Amagoia Beika (CIP) -Aitziber Barandika (LAB) -Igone Olabarria (AEK) -Xabi Goiria (Ehunzango aisialdi taldea) -Antonio Garcia (Errumaniarren hezitzailea) -Ekain Ormaetxea (Kultura zinegotzia) -Rosario (Ideasur) -Nerea Goiria / Fernando Basterretxea (Busturialdean Euskaraz Bizi) -Aitor Olasolo (Herritarra, lokutorio bateko arduradun ohia) 	<ul style="list-style-type: none"> -Nerea Jaio (Berritzegunea) -Koldo Carbonell (Seber Altube Ikastola) -Alex Viguera (Barrutialde institutua) -Bittor Zarrabeitia (Euskara teknikaria) -Idoia Fernandez (Euskara zinegotzia) -Oier Plaza (Astra proiektua) -Aitziber Erdozia (Eise hezitzailea) -Jabier Ortuzar (Gernikako Futbol taldea) -Iñaki Iglesias (Gernikako Rugby taldea) -Itziar Gabikagogeaskoa (ELA)

2. 1. BILERAKO AZTERGAIK.

- 2.1. Egitasmoaren aurkezpena.
- 2.2. Egitasmoaren helburuak azaldu eta sozializazioaren garrantzia azpimarratu.
- 2.3. Prozesuaren azalpena.
- 2.4. Elkar ezagutzeko jolasa.
- 2.5. Diagnostikoa, AMIA matrizea egin, adostu eta lehenetsi.
- 2.6. Bileraren balorazioa.

3. BILERAKO ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

- 3.1. Hurrengo bilerarako eguna adostu (egutegian markatuta dago).
- 3.2. AMIA matrizea honela lehenestea erabaki zen:

3.2. Bileran bateratutako amia:

KANPOKO FAKTOREAK

Aukerak - Oportunitades	1	2	3	Mehatxuak - Amenazas	1	2	3
1. herri euskalduna izatea	X			1.Ekintzetan parte hartzeko zailtasunak		X	
2. herriaren tamaina		X		2.Euskararik gabe bizi ahal da.	X		
3. eskolaz kanpoko ekintzak	X			3.Etorkinen eta bertokoen arteko interakzio falta.	X		
4. herriko taldeek antolatutako ekintzak	X			4. Kulturen ezagupen eza.	X		
5. elkarte kopuru aberatsa	X			5. Pazientzia gutxi euskaldun berriekin.			
6. Eskolaz kanpoko ekintzetan bertoko gurasoak eta guraso etorkinak elkarrekin egotea	X			6.erdararako joera	X		
7. bertoko eta kanpoko kulturen elkartrukatzea.		X		7.bertoko gaztetxoen artean jolasak eta jokoak gaztelaniaz egiteko joera egotea.	X		
8. euskararen prestigioa lana aurkitu ahal izateko	X			8.bertokoek kalean gaztelania erabiltzea (batez ere helduek)	X		
9. euskal herrira etorri direla ezagutaraztea	X			9. bertoko ikasleek gazte etorkinekin komunikatzeko gaztelaniara jotzea.	X		
10. bertoko gazteekin eskolan, aisialdian, kirolean...harremanak izatea.	X			10. Hegoamerikarren ama hizkuntza gaztelania izatea eta horrekin ondo moldatzea.		X	
11. aurreiritzi negatiboak uxatzeko, kultura desberdinen arteko elkarbizitzaren aberasgarritasuna.	X			11. etxeko giroan ere euskararen beharizanik ez sentitzea.		X	
12. eskola bukatutakoan euskaraz bizitzen jarraitzeko aukera	X			12. Herrialde desberdinetako etorkinak elkartzen direnean euren artean euskara ez erabiltzea, jakin arren.			X
				13. eskola bukatzen dutenean euskararekiko harremana galtzea.	X		
				14. Administrazioa guztiz euskalduna ez izatea: euskararen beharrik ez sentitzea (EH mailan)			X

BARNEKO FAKTOREAK

Indarguneak - Fortalezas	1	2	3	Ahuleziak - Debilidades	1	2	3
1. Egonkortasun ekonomikoa				1. Mugikortasun oso handia (etorkinak asko mugitzeko joera)	X		
2. Euskara plana (Gernikako udalak EBPN edukitzea)	X			2. Erdararako joera		X	
3. Kaleratu egiten ditugun gure kultur ekintzak	X			3. Gazteriaren konpromiso eza.	X		
4. Beste kulturekiko errespetua	X			4. Bertoko koadrilen izaera itxia.	X		
5. Hezkuntza eredua	X			5. Ikasturte batetik bestera zenbat ikasle etorkin egongo diren ez jakitea		X	
6. Astra proiektua	X			6. Etorkinen elkarteetan gaztelania erabiltzea.			X
7. Ama hizkuntza gaztelania ez duten etorkinek euskara errazago ikastea		X		7. Eskolako ikasgaiak gainditzeko lehentasuna ikustea eta ondorioz euskara kolokan jartzea.	X		
8. Eskolak eurak euskara ikasteko eta erabiltzeko lekua proposa izatea.	X			8. Eskoletan barneratzea lantzeko ezer berezirik ez egotea	X		
9. Errefortzu klaseak jasotzeko aukera eskaintzea	X			9. Etorkinen lan mundua oro har erdalduna izatea eta lanean aritzeko gaztelaniarekin ondo konpontzea.		X	
10. Ahalegina egin ondoren ikasten dutela ikustea.	X			10. Euskara eskolan bakarrik lantzen badute, eskolarekin soilik lotzea, ez aspektu sozio-afektiboekin.	X		
11. Bertoko gazteek gero eta euskara gehiago erabiltzea.	X						
12. Gernikan orotariko elkarteak euskaldunak izatea.	X						
13. Herrian dauden errotulu eta kartelak euskara hutsean izatea, eta hauek ulertzeko beharra sentitzea.	X						
14. Hurrengo belaunaldia euskalduna izango dela jakitea		X					
15. Udalaren eta herriko eragile desberdinen borondate ona erakustea.	X						
16. emakume etorkinak batez ere aitona-amona euskaldunak zaintzen egotea.			X				

4.HURRENGO BILERARAKO AZTERGAIAK.

- 4.1. Egitasmoaren helburuak gogoratu.
- 4.2. Behin betiko AMIA aurkeztu.
- 4.3. Helburu eta ildo estrategikoak proposatu, deskribatu eta ponderatu.(ikus beheko 4.3. puntua)
- 4.4. Hurrengorako ekintzen aurkezpena eta proposamena egin.
- 4.5. Bilera baloratu.

2. BILERA: 2008ko abenduaren 10a

2.BILERAKO AKTA.

Bertaratuak:	Bertaratu ez direnak
<ul style="list-style-type: none"> -Begoña Agirre (Inmigrazio teknikaria) -Bittor Zarrabeitia (Udaleko euskara teknikaria) -Eva Ugalde (Gernikako BHI) -Maria Garaizar (Mertzedek Ikastetxea) -Iratxe (San Fidel Ikastola) -Amagoia Beika (CIP) -Alex Viguera (Barrutialde BHI) -Josu Ojinaga (Seber Altube Ikastola) -Igone Olabarria (AEK) -Xabi Goiria (Ehuzango aisialdi taldea) -Pernando Basterretxea (Busturialdean Euskaraz Bizi) -Aitor Olasolo (Herritarra, lokutorio bateko arduradun ohia) -Oier Plaza (Gernikako gazte asanbladako kidea) -Jose Antonio Kobeaga (Gernikako futbol taldea). -Iban Rekalde (Lea Artibaiko egitasmoaren dinamizatzailea) 	<ul style="list-style-type: none"> -Nerea Jaio (Berritzegunea) -Rosario Silex (Ideasur) -Antonio García (Errumaniarren hezitzailea) -Aitziber Erdozia (Eise hezitzailea) -Idoia Fernandez (Euskara zinegotzia) -Ekain Ormaetxea (Kultura zinegotzia) -Iñaki Iglesias (Gernikako Rugby taldea)

2.Bileran esan-eginak eta erTABAKIAK:

- 2.1. Lan taldearen argakia egin.
- 2.2. Bilera eta egitasmoarekiko nor bere espektatibak azaldu.
- 2.3. Behin betiko AMIA aurkeztu eta amian oinarritutako ildoak atera ahuleziei buelta emanda.
- 2.5. Hurrengo bilerarako eguna adostu (urtarrilaren 14a).

3. Helburu eta ildo estrategiko horien proposamena:

1. Helburua: Bertoko euskaldunen eta etorkinen artean kalitatezko harreman sareak sortzea.

- 1.1. Etorkin gazteak euskarara hurbiltzea.
- 1.2. Aurreiritziak gainditzea.
- 1.3. Herritar sentiaraztea.
- 1.4. Herri mugimenduen gaineko ezagutza eta parte hartzea barneratzea.
- 1.5. Bertoko gazte euskaldun eta gazte etorkinen arteko harremanak sendotzea (lotura afektiboa garatzea).

2. Helburua: Bertoko biztanleek etorkinen kulturak, hizkuntzek eta jatorrizko herriek duten garrantzia aitortzea.

- 2.1. Etorkinen jatorrizko hizkuntza, herriak eta kulturaren gaineko ezagutza sustatzea herri mailan.
- 2.2. Bi norabide arteko topaketa eta esperientzia trukeak sustatzea eta erraztea (espazioa eta denbora eskaintzea).
- 2.3. Sentsibilizazio-motibazio lana. Jarrera eta kultur kontsumoaren transmisioa: kultur eragile guztien artean.

3. Helburua: Etorkinek euskara, euskal kultura eta Euskal Herriko egoera ezagutzea.

- 3.1. EHko eta Euskararen egoeraren gaineko informazioa jasotzea.
- 3.2. Eskoletako gazte etorkinak euskararen beharrianaz ohartaraztea eta aurrera egiteko aukerak eskaintzea.
- 3.4. Euskara eta euskal kulturarekiko lotura sozio-afektiboa izatea.
- 3.5. Esparru soziolaboralean ere euskararen erabileraz ohartaraztea.

4. Helburua: Etorkinek herrian partaidetza aktiboa izatea.

- 4.1. Antolatutako kultur ekintzetan partaide izatea
- 4.3. Motibazio afektiboa lortzea.
- 4.4. Etorkinen elkarteak herrian ekimenak antolatzea eta parte hartzea sustatzea.
- 4.5. Euskarazko kultur kontsumoa areagotu etorkinen artean.
- 4.6. Elkarte taldeetan kultur artekotasuna lantzea
- 4.7. Erabilera guneak, zerbitzuak eta aukerak eskaini integrazioari begira (familiei zein gazteei).
- 4.8. Eskolaz kanpoko jarduerak sustatu.

Bileran ateratako ideia (ildo) berriak:

1. Gune komunak landu: desberdintasunak egitea ekidin behar da.
2. Gazteei erakargarriak zaizkien loturak baliatu, bultzatu, promozionatu behar ditugu, esaterako, kirolak, musika, e.a.
3. Errealitate desberdinei aurre egiteko zubiak egiteko beharra.
4. Sare komunak sortu.
5. Hizkuntzara hurbildu dena saritu, kaleratu, bisibilizatu.
6. Malgutasuna eskaini (ordutegiak, baliabidea, programak...) eta horrelakoek malguak izan behar dute, etorkinen bizimodura egokitu ahal izateko.

5. Hurrengo bilerarako aztergaiak:

- 5.1. Ongi etorria, gai ordena irakurri eta egitasmoaren helburuak gogoratu.
- 5.2. Helburu eta ildo estrategikoen ponderazioa adostu.
- 5.3. Ekintza plana aurkeztu eta eragilekako banaketa egiteko proposamenak jaso. (6. puntuan dago ekintza planaren proposamena).
- 5.4. Bilera baloratu.

6. Ekintza planaren proposamena: Helburuei begirako ekintza plana:

1. Helburua: Bertoko euskaldunen eta etorkinen artean kalitatezko harreman sareak sortzea.

- Erabilera sustatzeko erabiliko ditugun tailerrak antolatu (gazteentzat interesgarriak izan litezken tailerrak).
- Egun osoko barnetegiak antolatu asteburuak aprobetxatuz.
- Aurreiritziak gainditzeko hitzaldiak / ekitaldiak antolatu.
- Gazte etorkinekin zuzenean egon perfil desberdinak ateratzeko.

-Bertoko eta gazte etorkinen artean gune komunak lantzeko bideak martxan jarri (gazteei erakargarriak zaizkien loturak bilatu, bultzatu).

2. Helburua: Bertoko biztanleek etorkinen kulturak, hizkuntzek eta jatorrizko herriek duten garrantzia aitortzea.

- Motibazio kanpainak sustatu hitzaldien bidez (gazteei zein helduei begira).
- Kultura uztarketa egin dezakegu, ipuinak, mitologia...erakusteko tailerrak, hitzaldiak ...sortu.
- Musika tresna desberdinak erakutsi, hemengoak eta kanpokoak (adarra,...)
- Euskara ikasi duten edo ikasten ari diren etorkinekin kalera begirako ekintzak antolatu.

3. Helburua: Etorkinek euskara, euskal kultura eta Euskal Herriko egoera ezagutzea.

- Euskal Herriaren eta euskararen berri emateko hitzaldiak antolatu.
- Ohiko euskara ikastaroak mantendu.
- Kirol, kultur eta gazte asanbladarekin batera gazte etorkinengana iristeko moduak jorratu.

4. Helburua: Etorkinek herrian partaidetza aktiboa izatea.

- Gernikako eragile desberdinek egiten dituzten ekintza desberdinen berri eman gazteek informazio gehiago izan dezaten.
- Herrialde desberdinetako ohituren berri eman herrian eta ospakizunen bat antolatu (solstizioa...)
- Etorkinen elkarteak antolatzen dituen ekintzetan parte hartzea (herrian horren berri eman eta parte hartzera bultzatu)
- Herri kirolak antolatu, etorkinen herrietako kirolak ezagutu eta txapelketatxoak antolatu (guraso etorkinak ere inplikatu).

4. AURRERA BEGIRAKO LANAK: kronograma eta 2009rako ekintza plana

Gazteak erakartzeko lan ildo nagusiak	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	IRAI	URR	AZA	ABEN
Koord / Antol / Hausn											
Tailerrak											
Hitzaldiak / Foroak											
Jai ospakizunak											
Asteburuetakoko barnet											
Irteerak											
Berbalagun (talde pilotua)											
Inmigrazio Plana eta Gazte Planarekiko uztark/ koordinazioa											
Matrikulazioaren jarraipena											
Korrika 2009 (ekitaldi berezia)											

Zb.	HELBURUA	Arduraduna	Baliabideak	EPEA												JARRAIPENA			Itxiera data	Oharrak	
				1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	1. Hiruhileko	2. Hiruhilekoa	2. Seihelek			
1.	Bertoko euskaldunen eta etorkinen artean kalitatezko harreman sareak sortzea.	Proiektuko teknikaria	Eusk. Zerb. aurrekontua																		
2.	Bertoko biztanleek etorkinen kulturak, hizkuntzek eta jatorrizko herriek duten garrantzia aitortzea.	Proiektuko teknikaria	Eusk. Zerb. aurrekontua																		
3.	Etorkinek euskara, euskal kultura eta Euskal Herriko egoera ezagutzea.	Proiektuko teknikaria	Eusk. Zerb. aurrekontua																		
4.	Etorkinek herrian partaidetza aktiboa izatea	Proiektuko teknikaria	Eusk. Zerb. aurrekontua																		

HELBURUA	Bertoko euskaldunen eta etorkinen artean kalitatezko harreman sareak sortzea	Arduraduna	Proiektuko teknikaria
-----------------	--	-------------------	-----------------------

Zb.	EKINTZA	Arduraduna	adierazleak	Baliabideak	EPEA												Itxiera data	Oharrak
					1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12		
5.	Erabilera sustatzeko erabiliko ditugun tailerrak antolatu (gazteentzat interesgarriak izan litezken tailerrak)	Proiektuko teknikaria	4 tailer	Eusk. Zerb. aurrekontua														
6.	Egun osoko barnetegiak antolatu asteburuak aprobetxatuz	Proiektuko teknikaria	3 barnetegi	Eusk. Zerb. aurrekontua														
7.	Aurreiritziak gaingintzeko hitzaldiak / ekitaldiak antolatu.	Proiektuko teknikaria	Ekitaldiak bai/ez	Eusk. Zerb. aurrekontua														

HELBURUA	Bertoko biztanleek etorkinen kulturak, hizkuntzek eta jatorrizko herriek duten garrantzia aitortzea.	Arduraduna	
-----------------	--	-------------------	--

Zb.	EKINTZA	Arduraduna	adierazleak	Baliabideak	EPEA												Itxiera data	Oharrak	
					1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12			
8.	Motibazio kanpainak sustatu hitzaldien bidez	Proiektuko teknikaria	Kanpaina bai/ez	Eusk. Zerb. aurrekontua															
9.	Urtean zehar jai ospakizunak antolatu	Proiektuko teknikaria	3 ekitaldi																
10.	ipuinak, mitologia...erakusteko tailerrak, hitzaldiak ...sortu	Proiektuko teknikaria	Tailerrak bai/ez	Eusk. Zerb. aurrekontua															
11.	Euskara ikasi duten edo ikasten ari diren etorkinekin kalera begirako ekintzak/irteerak antolatu	Proiektuko teknikaria	4 irteera	Eusk. Zerb. aurrekontua															

HELBURUA	Etorkinek euskara, euskal kultura eta Euskal Herriko egoera ezagutzea	Arduraduna	
-----------------	---	-------------------	--

Zb.	EKINTZA	Arduraduna	adierazleak	Baliabideak	EPEA												Itxiera data	Oharrak	
					1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12			
12.	Euskal Herriaren eta euskararen berri emateko hitzaldiak eta ekintzak antolatu: korrika 16.	Proiektuko teknikaria	Ekintza bai/ez	Eusk. Zerb. aurrekontua															
13.	Ohiko euskara ikastaroak mantendu	Proiektuko teknikaria	Ikastaroa bai/ez	Eusk. Zerb. aurrekontua															
14.	Eskolekin, Kirol eta kultur elkarteekin eta gazte asanbladarekin batera gazte etorkinengana iristeko moduak jorratu	Proiektuko teknikaria	Foroa bai/ez	Eusk. Zerb. aurrekontua															

HELBURUA	Etorkinek herrian partaidetza aktiboa izatea	Arduraduna	
-----------------	--	-------------------	--

Zb.	EKINTZA	Arduraduna	adierazleak	Baliabideak	EPEA												Itxiera data	Oharrak
					1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12		
15.	Gernikako eragile desberdinek egiten dituzten ekintza desberdinen berri eman gazteek informazio gehiago izan dezaten	Proiektuko teknikaria	Koordinazio foroa	Eusk. Zerb. Aurrekontua,														
16.	Herrialde desberdinetako ohituren berri eman herrian eta ospakizunen bat antolatu (solstizioa...)	Proiektuko teknikaria	Ospakizuna bai/ez	Eusk. Zerb. Aurrekontua,														
17.	Etorkinen elkarteak antolatzen dituen ekintzetan parte hartzea (herrian horren berri eman eta parte hartzera bultzatu)	Proiektuko teknikaria		Eusk. Zerb. Aurrekontua,														
18.	Herri kirolak antolatu, etorkinen herrietako kirolak ezagutu eta txapelketak antolatu (guraso etorkinak ere inplikatu)	Proiektuko teknikaria	Txapelketa bai/ez	Eusk. Zerb. Aurrekontua,														

5. BALORAZIOA ETA ONDORIOAK

Gernikako gazte etorkinak euskal mundura erakartzeko egitasmoa gauzatzeko 4 fase markatu genituen. Aurreneko fasean proiektu hau aurrera ateratzeko lanean jardun den lan taldeak gaiarekiko, oro har, eskarmentua, zeresana, motibazioa izan duten pertsonekin, besteak beste eragile nagusiarekin, Udalarekin, bestelako proiektuetan ibilitakoekin, Unesco etxeko jendearekin, Unibertsitatean gaian adituak direnekin izan zituen kontraste lanak, baita Euskal herrian antolatu ziren formazio-saioa eta bestelako interes taldeetan ere parte hartu zuen, ahalik eta informazio eta formazio kopuru handiena jasotze aldera. Horren ondotik, lehenengo fasea 2008ko uztailean hasi genuen Gernikako hainbat kultur, kirol aisialdi...talde elkarrizketatuz.

Urritik aurrera bigarren faseari ekin genion eta elkarrizketen emaitzetatik behin-behineko AMIA osatu genuen. Bigarren fase honen ardatzetariko bat lan taldea eratzea izan zen eta honetarako lehenengo bilera batean elkartu ginen azaroaren 19an Gernikako Kultur Etxean, arratsaldeko 18:30ean.

Bilera honetan 13 lagun bildu ginen eta behin betiko AMIA osatu, adostu eta lehenetsi genuen. Bigarren bilera, abenduaren 10ean egin genuen leku eta ordu berean eta hemen ere 14 lagun batu ginen. Bigarren bilera honen helburua ildo estrategikoak ateratzea izan zen eta horrela egin genuen, ahuleziei buelta emanez eta indarguneak sendotzeko lan ildoak markatuz.

Azkenik, 2009ko urtarrilaren 14an hirugarren bilera egin zen eta 2. fase hau bukatzeko, aurreko bileran ateratako ildo estrategikoak lehenestea izan zen lan taldearen eginkizunetariko bat. Honen ondotik, balizko ekintza plan bat aurkeztuz eta ekarpenak jasoz, bigarren ariketatxoa egin zuten: ekintza plana aurrera eramateko konpromisoak zehaztea, eta eragileka ekintzak esleitzea.

Honen ondotik, guk dagoeneko badugu esku artean aurrera egiteko hausnarketa estrategikoaren partitura, eta orain, hurrengo hilabeteen eragile bakoitzarekin adostu beharko ditugu bakoitzak partitura edo hausnarketa estrategiko horretako diseinuan izango dituen musika konponketak bere erakunde, egitura eta izaera horri erreparatuta, eta horrenbestez, ekintzak garatzen hastea.

Bileretan sortutako lan taldea oso zabala izan da, denetariko eragileek parte hartu baitute, eta balorazioen arabera, jendea oro har, pozik ibili da lanean. Hori dela eta, pozik gaude aurrera begira ere egingo dugun lanarekin, nahiz eta egitasmoa aurrera ateratzeari jendeak zaila deritzon, hala ere, egingarria, erabat aplikagarria eta interesgarria dela uste dute.

Asko da egiteko duguna baina asko da egin duguna. Lehen aldia izan da gai hauei modu irekian eta zuzenean heldu dioguna. Udala horretan aurretik aritu da, bere gidaritzapean hainbat elkartetako kidek hitz egin, adostu eta landu baitituzte etorkizun labur bati begirako interbentzioa nolakoa nahi duten.